

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2B19 Eskola astuna

Maila: A2

Helburua: Norbaiten deskribapena egitea.

Funtzioa: Pertsona deskribatzea.


Azken ekintza: Irakasle ideala aukeratzea.

Adierazpide linguistikoak:

- Hainbat atzizki: -gaitz, -gai, -era, -garri, -tsu.
- “Behar izan” birpasatu.

1- IKUSI AURRETIK

1.1 Badakizu...



Josu eta Amaia gaur klasetik irakasleari buruz atera dira hizketan. Zuk gogoratzen al dituzu zure irakasleak? Jarri talde txikitan eta komentatu puntu hauek:

- Gogoratzen al dituzue txikitako irakasleak?
- Ba al dago baten bat bereziki gogoratzen duzuenena? Zergatik?
- Nolakoak ziren garai hartako irakasleak?
- ...

Nire garaiko klaseak oso gogorak ziren. Askotan gelditzen ginen zigortuta. Nire irakasle bati “Reglitas” esaten genion, erregela batekin paseatzen ibiltzen zelako, eta, pasatzean burua liburutik altxatzen bazenuen, erregelarekin ematen zizun.

2 - IKUSI BITARTEAN

2.1 Hori klase aspergarria!



Ikusi elkarrizketa eta lagunekin adostu erantzunak.

Zer iruditzen zaio irakaslea Josuri? Jasangaitza, ez daki eskolak ematen. Eta zer dio Amaiak? Gustura egon dela, gaia interesgarria dela.

2.2 Lo seko!



Ikusi elkarrizketa berriro.

Josuren ustez, zenbat ikasle izango dira ikasturte-amaieran? Amaia bakarrik. Zer erabaki du Josuk? Ikasgaia bere kabuz prestatzea. Zergatik haserretu da irakaslea? Josuk lo hartu duelako eta zurrunga egin duelako.

3 - IKUSI ONDOREN

3.1 Interesgarria.



Testuko esaldi hauetan zenbait atzizki azaltzen dira. Esaldiei erreparatuta, zer uste duzu esan nahi dutela? Lotu atzizki bakoitza bere esanahiarekin. Atzizki hauei buruzko azalpenak eman.

- Gizon hau jasan**gaitz**a da.
- Asko jakingo du ikas**gai**az.
- Ikasturte hasi**era**n ere esan nuen.
- Bai baina gaia oso interes**garri**a da.
- Masterrean oso garrantzi**tsu**a da eta.

| | | | | |
|----------|---------------|--|----------|---------------------------------------|
| 1 | -gaitz | <i>ulergaitz, sendagaitz, sinesgaitz</i> | c | <i>ekintza gauzatzeko zailtasuna.</i> |
| 2 | -gai | <i>elikagai, aztergai, hautagai</i> | e | <i>materia, gaia.</i> |
| 3 | -era | <i>amaiera, joera, ibilera</i> | d | <i>ekintza, modua.</i> |
| 4 | -garri | <i>barregarri, mingarri, beldurgarri</i> | a | <i>eragiten du, sortzen du.</i> |
| 5 | -tsu | <i>menditsu, jendetsu</i> | b | <i>ugaritasuna.</i> |

3.2 Egingaitza.



Saia zaitetze esaldi hauek berridazten atzizkiak erabilia.

*Irakaslearen azalpenak oso zailak dira ulertzen. Irakaslearen azalpenak oso **ulergaitzak** dira.*


*Bere erantzunak harritu egin nau. Bere erantzuna **harrigarria** izan da.*

*Etxera iristeko aldapa asko daude. Etxeko bidea oso **aldapatsua** da.*

*Ez zait gustatu nola portatu den. Bere **portaera** ez zait gustatu.*

*Gaur gelan entzun dugun audioa oso polita izan da. Gaurko **entzungaia** oso polita izan da.*

3.3 Irakasle ideala.



Gure protagonistak ez daude gustura irakaslearekin. Zuek ez duzue arazo hori izango. Orain irakasle bat kontratatu behar duzue zuen talderako. Nolakoa izan behar du? Egin irakasle idealaren dekalogoia.

Ariketa hau egiteko beharko dituzten baliabideei buruko azalpenak eman.

Batez ere, *behar izan* eta etorkizuneko aspektua. Adibidez:

- *Ariketa interesgarriak ekarri behar ditu.*
- *Klase atseginak egingo ditu.*

| | |
|----|--|
| 1 | |
| 2 | |
| 3 | |
| 4 | |
| 5 | |
| 6 | |
| 7 | |
| 8 | |
| 9 | |
| 10 | |

TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Ez dago eskubiderik. Gizon hau jasangaitza da.

AMAIA.— Zein, Iñaki?

JOSU.— Nor ba, bestela?

AMAIA.— Zer zakarra zaren batzuetan.

JOSU.— Asko jakingo du ikasgaiaz, baina ez daki eskolak ondo ematen.

AMAIA.— Ba ni gustura egon naiz.

JOSU.— Gustura? Ni zuregatik etorri naiz bere eskolara. Baina ez naiz bueltatuko.

AMAIA.— Ez da hainbesterako izango.

JOSU.— Ikasturte hasieran ere esan nuen ez nintzela etorriko. Eta hara!

AMAIA.— Zer?

JOSU.— Ba urrian arrazoi nuela eta orain berdin-berdin pentsatzen dudala.

ETENA

AMAIA.— Ba nik ez dut zuk bezala ikusten.

JOSU.— Pentsatu, Amaia. Zenbat ikasle izan gara gaur?

AMAIA.— Bederatzi.

JOSU.— Hortxe duzu proba. Taldean 25 ikasle gara. Ikasturte amaieran, zu bakarrik joango zara Iñakiren eskoletara.

AMAIA.— Bai egia esan, bere eskolak ez dira oso atseginak.

JOSU.— Ikusten? Zuk gauza bera pentsatzen duzu.

AMAIA.— Bai baina gaia oso interesgarria da.

JOSU.— Ikasgai hau neure kabuz prestatuko dut.

AMAIA.— Lan pila bat egin beharko duzu, masterrean oso garrantzitsua da eta.

JOSU.— Ez zait inporta. Ez naiz bueltatuko. Eta ez saiatu ni konbentzitzen, mesedez.

AMAIA.— Ez, lasai, Josu, bakarrik etorriko naiz.

JOSU.— Gainera, irakaslea haserretu egin zait! Ez dut ulertzen.

AMAIA.— Josu, lo hartu duzu!

JOSU.— Ez da harritzekoa!

AMAIA.— Eta gainera, ez da haserretu lo hartu duzulako.

JOSU.— Zergatik, ba?

AMAIA.— Zurrunga egin duzulako.

JOSU.— Bueno, ez zen hainbesterako izango...

AMAIA.— Baboa!